**2016ko MARTXOAREN 10eko UDALBATZARRA**
PLENO DE 10 DE MARZO DE 2016

**BERTARATUAK /** ASISTEN**:**

**ALKATEA /** ALCALDE: **JOSU IRATZOKI AGIRRE**

**ZINEGOTZIAK** / CONCEJALES Y CONCEJALAS**:**
**Mª ARANZAZU ZUBIETA OCHOTECO, JOSE MANUEL PORTU BERASATEGUI, IXONE TELLECHEA URANGA, AITOR ELEXPURU EGAÑA, MIKEL LERTXUNDI KORTA, GERMAN CASTILLO LAZCANOTEGUI, JOSE MIGUEL GORRIA VICUÑA, JOSE ANTONIO OYARZABAL IRIBAS, RAQUEL QUIROGA TAPIA,**

**IDAZKARIA** / SECRETARIA: **PILAR CHUECA INTXUSTA.**

**BERTARATU EZ DIRENAK /** NO ASISTEN:
**JUAN LOSA OCARIZ (bidean istripua**/ accidente en trayecto)**.**

**Tokia: BERAko Herriko Etxea**
**Eguna: 2016-03-10**
**Ordua: 19:30**
**Bilera-mota: ohikoa, 1. deialdia**

Lugar: Casa Consistorial de BERA
Día: 10-03-2016
Hora: 19:30
Tipo sesión: ordinaria, 1ª convocatoria.

**TRATATZEKO GAIAK:**

ASUNTOS A TRATAR:

**1.- AZKENEKO AKTA ONARTZEA.-**

**2016.eko otsailaren 11an egindako bileraren akta ikusirik, aho batez, ONARTU DUTE.**

1.- APROBACIÓN ACTA SESIÓN ANTERIOR.-

Vista el acta de la sesión celebrada el día 11 de febrero de 2016, por unanimidad SE APRUEBA.

**2.- BERAKO UDAL PLAN OROKORRA EGITEKO NAFARROAKO GOBERNUAREN LANDA GARAPENERAKO, INGURUMENEKO ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO DEPARTAMENTUAREKIN SINATU BEHAR DEN LANKIDETZA HITZARMENA ALDATZEA.**

2.- MODIFICACIÓN DEL CONVENIO DE COLABORACION A SUSCRIBIR CON EL DEPARTAMENTO DE DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE Y ADMNISTRACION LOCAL DEL GOBIERNO DE NAVARRA PARA LA ELABORACIÓN DEL PLAN GENERAL MUNICIPAL.

***Idazkariak hitzarmeneko 6. estipulazioan Nafarroako Gobernuak bidali duen aldaketa azaldu eta, horren ondotik, aho batez, honako erabakia hartu dute:***

*La Secretaria explica la modificación de la 6ª estipulación del convenio remitida por el Gobierno de Navarra y, seguidamente, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

**2016ko urtarrilaren 14an Udalak eginiko osoko bilkuran Berako Udal Plan Orokorra egiteko Nafarroako Gobernuaren Landa Garapenerako, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentuarekin sinatu behar den lankidetza-hitzarmenaren testua onetsi zuen.**

En el Pleno celebrado el 14 de enero de 2016 el Ayuntamiento aprobó el texto del convenio de colaboración a suscribir con el Departamento de Desarrollo Local, Medio Ambiente y Administración Local del Gobierno de Navarra para la elaboración del Plan General Municipal de Bera.

**Geroztik, Nafarroako Gobernuaren Landa Garapenerako, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentuak sinatu behar den lankidetza-hitzarmenaren testu berria bidali du, Udalak onar dezan. Testu berrian horren 6. estipulazioa aldatu du.**

Posteriormente, el Departamento de Desarrollo Local, Medio Ambiente y Administración Local del Gobierno de Navarra ha remitido un nuevo texto del convenio de colaboración a suscribir para su aprobación. En el nuevo texto se modifica la estipulación 6ª del mismo.

**Hori dela eta, ERABAKI DUTE:**

Por todo lo anterior, SE ACUERDA:

**1) Berako Udal Plan Orokorra egiteko Nafarroako Gobernuaren Landa Garapenerako, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentuarekin sinatu behar den lankidetza-hitzarmenaren testu berria, 6. estipulazioa aldatzen duena, onestea.**

1) Aprobar el nuevo texto con la modificación de la estipulación sexta del convenio de colaboración a suscribir con el Departamento de Desarrollo Local, Medio Ambiente y Administración Local del Gobierno de Navarra para la elaboración del Plan General Municipal de Bera.

**2) Tok Entitateen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren gaineko Erregelamenduaren 41.12. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, aipatu hitzarmena Jose Iratzoki Agirre Alkateak, edo legalki ordezkatzen duenak, sinatuko duela adieraztea.**

2) Señalar que, de conformidad con el artículo 41.12. del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales, el Alcalde Josu Iratzoki Agirre o quien legalmente le sustituya será quien llevará a cabo la firma de dicho convenio.

**3) Erabaki hau Nafarroako Gobernuaren Landa Garapenerako, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentuari igortzea.**

3) Trasladar este acuerdo al Departamento de Desarrollo Local, Medio Ambiente y Administración Local del Gobierno de Navarra.

**3.- 1. POLIGONOKO 59. LUR-ZATIAN KATASTROAREN TITULARITATEA ALDATZEA: ONDARE ONDASUNETIK UDAL HERRI LURRERA.**

3.- MODIFICACIÓN TITULARIDAD CATASTRAL PARCELA 59, POLÍGONO 1, DE BIEN PATRIMONIAL A BIEN COMUNAL DEL AYUNTAMIENTO.

***Idazkariak azaldu du espedientea eta, aho batez, honako erabakia hartu dute:***

*La Secretaria explica el expediente y, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

**2015eko urriaren 30ean Nafarroako Gobernuaren Herri Lurraren Atalak, 1. poligonoko 60. lur-zatiaren titularitatea katastroan aldatzeko egin zuen txostenean, baita ere, aipatu zuen 1. poligonoko 59. lur-zatia Udalaren izenean, ondare ondasun gisa, agertzen zela baina jatorriz herri lurra zela.**

En el informe emitido por la Sección de Comunales del Gobierno de Navarra el 30 de octubre de 2015 para el cambio de titularidad de la parcela 60 del polígono 1 manifestaba, también, que la parcela 59 del polígono 1 estaba a nombre del Ayuntamiento como bien patrimonial pero que en su origen era comunal.

**Txosten honetan dio Udalak lur-zati hau kuartel bat egiteko laga zuela baino, eraikia desagertu denez, lurra Berako herri lurrera bueltatu beharko litzatekeela, laga egin baino lehen zegoen moduan. Aldi berean, Udalari premiatzen dio aipatu lur-zatiaren titularitatea aldatzeko behar diren izapideak egiten has dadin, ondare ondasunetik Berako Udalaren herri lurrera pasatzeko, hain zuzen.**

Indica en dicho informe que esta parcela fue cedida por el Ayuntamiento para la construcción de un cuartel pero, como el edificio ya no existe, el suelo debería volver al patrimonio comunal de Bera como lo era antes de la cesión. Al mismo tiempo, insta al Ayuntamiento a que inicie los trámites para modificar la titularidad de la citada parcela pasando de bien patrimonial a bien comunal del Ayuntamiento de Bera.

**Horri buruz Catastros-Estudio 5, s.l. enpresak 2016ko otsailaren 12an eginiko txostenean dio Udalak bat egiten badu Nafarroako Gobernuaren Herri lurraren Atalak aipatu txostenean eskatzen dionarekin egokiena izango litzatekeela 1. poligonoko 59. lur-zatia desagertzea eta horren lurrak inguratzen duen herri lurrean sartzea, 1. poligonoko 1. lur-zatian, alegia.**

En informe de fecha 12 de febrero de 2016 realizado al respecto por la empresa Catastros-Estudio 5, s.l. señala que si el Ayuntamiento está conforme con lo requerido por la Sección de Comunales del Gobierno de Navarra lo más correcto sería dar de baja la parcela 59 del polígono 1 e incluir los terrenos de la misma dentro del comunal que le rodea, es decir, dentro de la parcela 1 del polígono 1.

**Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko 12/2006 Foru Legearen 25.3 artikuluari jarraikiz,**

De acuerdo con lo establecido en el artículo 25.3 de la Ley Foral 12/2006 Del Registro de la Riqueza Territorial y de los Catastros de Navarra,

**ERABAKI DUTE:**

SE ACUERDA:

**1) 1. poligonoko 59. lur-zatiaren titularitatea aldatzea udal katastroan, udal ondare ondasunetik Berako udal herri lurrera pasatuz.**

1) Cambiar en el catastro municipal la titularidad de la parcela 59 del polígono 1, pasando de bien patrimonial a bien comunal del Ayuntamiento de Bera.

**2) Horretarako, lur-zati horri baja ematea eta bere lurrak inguratzen duen herri lurrean sartzea, 1. poligonoko 1. lur-zatian hain zuen ere.**

2) Para ello, dar de baja la citada parcela e incluir sus terrenos en la parcela comunal que la rodea, parcela 1 del polígono 1.

**3) Erabaki hau Nafarroako Gobernuaren Lurraldearen Aberastasunaren Zerbitzuari eta Herri lurraren Atalari bidaltzea behar diren ondorioetarako.**

3) Remitir este acuerdo al Servicio de Riqueza Territorial y a la Sección de Comunales del Gobierno de Navarra a los efectos oportunos.

**4.- 638 ETA 639 ZBK.KO HERRI MENDIETAN, "ARREGI" PARAJEKO OHIAN-APROBETXAMENDUEN ENKANTEA (PEFC ohian ziurtagiria).**

4.- SUBASTA FORESTAL APROVECHAMIENTOS FORESTALES EN MONTE COMUNAL Nº 638 Y 639, PARAJE DE "ARREGI" (certificación forestal PEFC).

***Idazkariak espediente azaldu eta, aho batez, honako erabakia hartu dute:***

*La Secretaria explica el expediente y, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

**Ikusirik, 638 eta 639 herri mendietan, "Arregi" parajeko oihan-aprobetxamenduen espedientea (PEFC ohian ziurtagiria):**

Visto expediente de aprovechamiento forestal en los montes comunales nº 638 y 639 paraje "Arregi" (certificación forestal PEFC):

| Lote | Paraje | Especie forestal | Nº pies | Localización | Tipo de corta | M3 madera | M3 tronquillo | M3 total | Valoración |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Unico | Arregi | Pino insignis | 2.364 | 103b,104bc, 105ac, 106b | A hecho | 2.933 | 430 | 3.363 | 92.278,84 € |

**Mendietako Zerbitzuko Zuzendariaren 50/2016, urtarrilaren 15eko ebazpenak Berako Udalaren herri-lurraren mendiari dagokion 2015eko Hobekuntza eta Aprobetxamendu Plana onartu eta, horren ondorioz, aipatutako oihan-aprobetxamendua baimendu ditu.**

Por Resolución 50/2016, de 15 de enero, del Director del Servicio de Montes se aprueba el Plan Anual de Aprovechamientos y Mejoras para 2015, correspondiente al monte comunal de Bera y, en consecuencia, se autoriza el aprovechamiento forestal antes reseñado.

**Horregatik, ERABAKI DUTE:**

Por ello, SE ACUERDA:

**1) Oihan-aprobetxamendu honen enkantea arautu behar duen baldintza-plegua onestea.**

1) Aprobar el pliego de condiciones económico-administrativas que regirá la subasta de este lote.

**2) Aipatutako oihan-aprobetxamendua enkante irekian egitea.**

2) Sacar a pública subasta la venta de dicho lote forestal.

**3) Enkante honen iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Foru Komunitatean**

3) Publicar anuncio de esta subasta en el Boletín Oficial de Navarra, en uno o más diarios

**argitaratzen den egunkari batean edo gehiagotan, Udal Taulan eta Nafarroako Kontratazio Atarian iragartzea.**

de los que se publican en la Comunidad Foral, en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento y en el Portal de Contratación de Navarra.

**4) Enkantea hutsa gelditu ezkero %10 eta %20 merkeago ateratzea, bigarren eta hirugarren enkantean, hurrenez hurren.**

4) Si quedara desierta la subasta sacarlo con el 10% y el 20% de rebaja, en segunda y tercera subasta, respectivamente.

**5.- BERAKO LIBURUTEGIKO ENKARGATUAREN LANPOSTUAREN DEIALDIA ZUZENBIDE OSOZ DEUSEZTATZEKO ALKATEAK NAFARROAKO GOBERNUARI EGINIKO ESKAERA BERRESTEA.**

5.- RATIFICACIÓN SOLICITUD DE ALCALDÍA AL GOBIERNO DE NAVARRA PARA DECLARACIÓN DE NULIDAD DE PLENO DERECHO DE LA CONVOCATORIA DE ENCARGADO/A DE LA BIBLIOTECA DE BERA.

***Idazkariak azaldu du zergatik egin den eskaera Alkatearen izenean eta, orain, eskaera hori berretsi egin behar dela.***
***Horren ondotik, aho batez, honako erabakia hartu dute:***

*La Secretaria explica la razón por la que se ha hecho la solicitud a nombre del Alcalde y, ahora, hay que ratificarla.*
*Tras ello, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

**2015eko irailaren 24an Udalak eginiko Osoko bilkuran Nafarroako Gobernuari zera eskatu zion:**

El Ayuntamiento en el Pleno celebrado el 24 de septiembre de 2015 solicitó al Gobierno de Navarra lo siguiente:

***"- Funtzio Publikoaren Zuzendari Nagusiak ekainaren 22an emandako 1484/2015 Ebazpenaren bidez Nafarroako Gobernuaren zerbitzuko Berako liburutegiko arduradun izateko lanpostua oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia bertan behera uztea.***
***- Berako liburutegiko arduradunaren lanpostuaren hizkuntza perfila plantilla organikoan aldatzea eta euskara merezimendu gisa izan beharrean derrigorrezko izatea jartzea.***
***- Horren ondotik, aipatu Berako liburutegiko enkargatuaren lanpostua betetzeko deialdi berria onestea non euskera jakitea betebehar gisa egon behar den."***

*"- Que anule la convocatoria para la provisión, mediante concurso-oposición, de la plaza del puesto de trabajo de Encargado/a de la biblioteca de Bera aprobada por Resolución 1484/2015, de 22 de junio, del Director General de Función Pública.*
*- Que se modifique en la plantilla orgánica el perfil lingüístico de la plaza de encargado/a de de la biblioteca de Bera en el sentido de que en vez de mérito cualificado sea requisito obligatorio.*
*- Tras lo anterior, que se apruebe nueva convocatoria en la que el conocimiento del euskera sea contemplado como requisito para la provisión del puesto de trabajo de encargado/a de la biblioteca de Bera.*

**Orain arte Nafarroako Gobernuak ez dio**

Hasta ahora, el Gobierno de Navarra no ha

**erantzunik eman Udalak eskatu zionari.**

respondido a lo solicitado.

**Hala ere, Udalari iruditzen zaio Funtzio Publikoaren Zuzendari Nagusiak ekainaren 22an emandako 1484/2015 Ebazpenaren bidez eginiko deialdia, Nafarroako Gobernuaren zerbitzuko Berako liburutegiko arduradun izateko lanpostua oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa, zuzenbide osoz deusez dela konstituzioaren babesa duten askatasunak eta eskubideak urratzen dituelako (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen, 62.1.a artikulua).**

Sin embargo, el Ayuntamiento entiende que la convocatoria para la provisión, mediante concurso-oposición de Encargado/a de la biblioteca de Bera aprobada por Resolución 1484/2015, de 22 de junio, del Director General de Función Pública es nula de pleno derecho por vulnerar derechos y libertades susceptibles de amparo constitucional (artículo 62.1.a de la Ley 30/1992 de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común).

**Hain zuzen ere, urratzen duen konstituzioaren babestutako eskubidea baldintza berdintasunetan funtzio publikoetan sartzekoa da zeina ezarrita dagoen Konstituzioaren 14. eta 23.2 artikuluetan, biak horren 103.3 artikuluarekin loturik.**

En concreto, el derecho constitucional que se vulnera es el de acceso a las funciones públicas en condiciones de igualdad recogidos en los artículos 14 y 23.2 de la Constitución, ambos en conexión con el artículo 103.3 de la misma.

**Hori dela eta, ERABAKI DUTE:**

Por ello, SE ACUERDA:

**1) Alkateak joan den martxoaren 1ean Nafarroako Gobernuaren Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Kontseilariari luzatutako eskaera berrestea eta, horren ondorioz, eskatzea:**

1) Ratificar la solicitud realizada por Alcaldía a la Consejera de Presidencia, Función Pública, Interior y Justicia del Gobierno de Navarra el 1 de marzo pasado y, en consecuencia solicitar:

**1.1) Funtzio Publikoaren Zuzendari Nagusiak ekainaren 22an emandako 1484/2015 Ebazpenaren bidez eginiko deialdia, Nafarroako Gobernuaren zerbitzuko Berako liburutegiko arduradun izateko lanpostua oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa, ofizioz berrikustea eskatzea, zuzenbide osoz deuseztasuna aitortzeko.**

1.1) La revisión de oficio a fin de que se declare la nulidad de pleno derecho de la convocatoria para la provisión, mediante concurso-oposición de Encargado/a de la biblioteca de Bera aprobada por Resolución 1484/2015, de 22 de junio, del Director General de Función Pública.

**2) Ofizioz berrikuste hori izapidetzen den bitartean aipatu Funtzio Publikoaren Zuzendari Nagusiaren 1484/2015 Ebazpenaren bidez eginiko deialdia, Nafarroako Gobernuaren zerbitzuko Berako liburutegiko arduradun izateko lanpostua oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa, etetea. Hau hautagaiei zaila erreparatzeko sor liezazkiekeen kalteak saihesteko, hautatzeko**

2) Mientras se produce la tramitación de la revisión de oficio se proceda a decretar la suspensión de la convocatoria para la provisión, mediante concurso-oposición de Encargado/a de la biblioteca de Bera aprobada por Resolución 1484/2015, de 22 de junio, del Director General de Función Pública para evitar perjuicios de difícil reparación a los aspirantes a la prueba selectiva si se desarrolla y, poste-

**froga egin eta, geroxeago, froga horren deialdia zuzenbide osoz deuseztasuna aitortzen bada.**

riormente, se declara la nulidad de pleno derecho de la Resolución por la que se convocó.

**6.- ANIMALIAK EDUKI ETA BABESTEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA (40. h artikulua) ALDATZEA: HASIERA BATEZ ONESTEA.**

6.- MODIFICACIÓN ORDENANZA REGULADORA SOBRE LA TENENCIA Y PROTECCIÓN DE LOS ANIMALES (artículo 40 h): APROBACIÓN INICIAL.

***Idazkariak espedientea azaldu eta gero, aho batez, honako erabakia hartu dute:***

*La Secretaria explica el expediente y, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

**Ikusirik, Animaliak eduki eta babestea arautzen duen Ordenantzaren 40. h) artikulua aldatzeko espedientea.**

Visto expediente de modificación del artículo 40 h) de la Ordenanza reguladora sobre la tenencia y protección de los animales.

**Aipatu artikulu horrek ezarri du arriskugarri gerta daitezkeen animaliak edukitzeko gaitasun fisikoa eta psikologikoa erakusten duen ziurtagiria, beste dokumentazioaren artean, urtero aurkeztu behar dela.**

El citado artículo establece que anualmente, entre otra documentación, debe presentarse el certificado de capacidad física y aptitud psicológica para la tenencia de animales potencialmente peligrosos.

**Kontuan hartuz, ziurtagiri hau baimena lortzeko egiten dela eta baimen hau 5 urtetarako balio duela egokia ikusten da ziurtagiri hori, bakarrik, baimena lortzeko edo berritzeko exijitzea.**

Teniendo en cuanta que este certificado es necesario para la consecución de la licencia y ésta tiene una validez de 5 años se estima adecuado exigir el citado certificado, solamente, para la consecución o renovación de la licencia.

**Hori dela eta, ERABAKI DUTE:**

Por todo ello, SE ACUERDA:

**1) Animaliak eduki eta babestea arautzen duen Ordenantzaren 40 h) artikulua aldatzea hasiera batez onestea, modu honetan erredaktatua:**

1) Aprobar inicialmente la modificación del artículo 40 h) de la Ordenanza reguladora sobre la tenencia y protección de los animales que se redactaría de la siguiente forma:

***"Arriskugarri gerta daitezkeen animalien erregistroan aurkeztu beharko dituzte, urtea amaitu baino lehen, albaitariaren urteroko azterketa egiaztatzen duen agiria, eta mota honetako animaliak edukitzeak dakartzan arriskuetatik babesteko formalizatzen den aseguruaren nahiz erantzukizun zibileko***

*"Deberán presentar en el Registro municipal de animales potencialmente peligrosos antes del final de cada año el certificado correspondiente a la revisión veterinaria anual, así como copia compulsada del seguro y de la prima de responsabilidad civil que se formalice para cubrir los riesgos derivados de la tenencia de*

***sariaren kopia konpultsatuak."***

**2) Ordenantzaren aldaketa hau jendaurrean paratzea 30 egunez, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Herriko Etxeko iragarki oholean argitaratu eta gero, herritarrek eta bidezko interesa dutenek denbora horretan espedientea aztertu eta erreklamazio, kexa eta oharrak jartzeko aukera izan dezaten.**

**3) Erreklamazio, kexa edo oharrik aurkezten ez da lehen aipatutako epean, hasierako onespen hau behin betiko bilakatuko da. Kasu honetan, ondorio juridikoak sortzeko, gertaera hau, behin betiko testuarekin batera, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.**

*este tipo de animales."*

2) Exponer al público la modificación de dicha ordenanza, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento, por el plazo de 30 días para que los vecinos, vecinas, interesados e interesadas legítimas puedan examinar el expediente y formular reclamaciones, reparos y observaciones.

3) Si no hubiera reclamaciones, reparos y observaciones en el plazo indicado en el punto anterior el acuerdo de aprobación inicial pasará a definitivo. En este caso, para la producción de efectos jurídicos, se publicará esta circunstancia, junto con el texto definitivo en el Boletín Oficial de Navarra.

**7.- UDALBILTZA PARTZUERGOA ZEIN BERE ESTATUTUEKIN BAT EGITEA ETA BERTAN SARTZEKO ESKAERA LUZATZEKO ESPEDIENTEARI HASIERA EMATEA.**

7.- INICIO EXPEDIENTE DE ADHESIÓN AL CONSORCIO UDALBILTZA Y APROBACIÓN ESTATUTOS Y SOLICITUD DE INGRESO AL MISMO.

***Idazkariak prozedura azaldu eta Alkateak zera gaineratu dut:***
***Udalbiltzaren helburua da Euskal Herriko udalak biltzea elkarrekin lana egin eta laguntzeko. Azken urtetan geldirik egon da, partaide batzuk kartzelatu zituzten eta, orain, berpiztu da berriro.***

***German Castillok:***
***Nafarroako Udal Federazioaren antzekoa da, politika tendentzia bakoitzak bere erakundea sortzen du, beraz, abstenituko da.***

***Zozketa egina, holako emaitza atera da:***

***Aldeko botoak: 9 (6 EH Bildu eta 3 Herrirako.)***
***Aurkako botoak: 0.***
***Abstentzioak: 1 (Herrirako).***

***Beraz, legeak eskatutako gehiengo osoz, honako erabakia hartu dute:***

*La Secretaria explica el procedimiento y el Alcalde añade lo siguiente:*
*El objeto de Udalbiltza es la unión de los Ayuntamientos de Euskal Herria para trabajar y prestar ayuda en común. Los últimos años ha estado parada, encarcelaron a varios miembros y, ahora, está empezando de nuevo.*

*Germán Castillo:*
*El funcionamiento es similar a la Federación Navarra de Ayuntamientos, cada tendencia política crea su organismo, por lo que se abstendrá.*

*Realizada la votación resulta:*

*Votos a favor: 9 (6 EH Bildu y 3 Herrirako)*
*Votos en contra: 0*
*Abstenciones: 1 (Herrirako).*

*Por lo que, con el quórum de la mayoría absoluta legalmente exigida, adoptan el siguiente acuerdo:*

**Ikusirik, Udalbiltza Partzuergoak luzatutako proposamena Berako Udala partzuergo honen kidea izateko eta horrekin batera bidalitako dokumentazioa eta Udalbiltza Partzuergoaren estatutuak.**

Vista propuesta de adhesión al Consorcio Udalbiltza remitida al Ayuntamiento de Bera por el citado consorcio así como la documentación y estatutos del consorcio Udalbiltza adjuntos.

**Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 212. eta 213 artikuluak zein Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 87 artikuluekin eta dagokion beste gainontzeko legeriarekin bat etorriz.**

De acuerdo con lo establecido en los artículos 212 y 213 de la Ley Foral 6/1990 de Administración Local y 87 de la Ley reguladora de las Bases de Régimen Local y demás normativa aplicable.

**Legeriak eskatutako gehiengo osoz, ERABAKI DUTE:**

Por mayoría absoluta, legalmente exigida, SE ACUERDA:

**1) Udalbiltza Partzuergoarekin bat egin bere estatutuak onartu eta bertan sartzeko eskaera luzatzeko espedienteari hasiera ematea.**

1) Iniciar el expediente de adhesión al Consorcio Udalbiltza, aprobación de estatutos y solicitud de ingreso en el mismo.

**2) Hori dela eta, bai Udalbiltzaren Partzuergoaren estatutuak bai espedientea hau hamabortz egunetako epean jendaurrean jartzea, udal taulan eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean aurrez aurreko iragarkia jarrita.**

2) En consecuencia, someter a información pública por el plazo de quince días los estatutos del Consorcio Udalbiltza así como la documentación obrante en el expediente, previo anuncio en el tablón de anuncios municipal y en el Boletín Oficial de Navarra.

**8.-“TRANSGENIKORIK GABEKO ZONALDEA” INSTITUZIONALKI DEKLARATZEA: GREENPEACE.**

8.- DECLARACIÓN INSTITUCIONAL COMO “ZONA LIBRE DE TRANSGENICOS”: GREENPEACE.

***Alkateak Transgenikorik gabeko zonaldea instituzionalki aitortzeko bidalitako idatzia azaldu du eta horren ondotik, aho batez, onartu eta honako erabakia hartu dute:***

*El Alcalde explica el escrito remitido solicitando la declaración institucional de zona libre de transgénicos, tras lo cual, por unanimidad, se acepta y se adopta el siguiente acuerdo:*

**Ikusirik, Amigos de la Tierra, CECU, COAG, Ekologistak martxan eta Greenpeace eta Hazien Sarea elkarteek**

Visto escrito remitido por las asociaciones Amigos de la Tierra, CECU, COAG, Ecologistas en acción, Greenpeace y Red de

**bidalitako idatzia non eskatzen dituzten "Transgenikorik gabeko zonaldea" aitortzea, glifosatoa ez erabiltzea eta produktu ekologikoak eta, gehienbat, bertakoak kontsumitzea.**

**ERABAKI DUTE:**

**1) BERA herria transgenikorik gabeko zonaldea instituzionalki aitortzea.**

**2) Udalaren menpean dauden arlo eta guneetan (parkeak, lorategiak, herriko baratzeak, karretera eta bideak mantentzea…..) glifosatoa erabiltzeari uztea.**

**3) Produkzio ekologikoa bultzatzea nahiz Udalaren eskuetan dauden establezimenduetan eta jardunetan (eskolak, erresidentziak, administrazio publikoa, bestak eta ospakizunak, jantoki sozialak eta abar) produktu ekologikoak, gehienbat, bertakoak kontsumitzekoaren aldeko apustua egitea.**

Semillas en el que solicitan que se declare institucionalmente "Zona Libre de Transgénicos", no utilizar glifosato y el consumo de productos ecológicos, preferentemente locales.

SE ACUERDA:

1) Declarar institucionalmente BERA como "Zona Libre de Transgénicos".

2) Dejar de utilizar el glifosato en aquellas áreas cuya gestión depende del Ayuntamiento (parques, jardines, huertos públicos, conservación de carreteras y caminos....).

3) Fomentar la producción ecológica y apostar por el consumo de productos ecológicos preferentemente locales, en los establecimientos y actos en que el municipio tenga competencias (colegios, residencias, administración pública, actos públicos y festejos, comedores sociales.......).

**9.- URTZI LOIARTE IGANTZIKO ZINEGOTZIAREN LANAREN EGOERA: IGANTZIKO UDALA.**

***Alkateak Igantziko Udalak Urtzi Loiarte zinegotziaren lanaren egoerari buruz bidalitako idatzia irakurri du eta, aho batez, onartu dute eta honako erabakia hartu dute:***

**Ikusirik, Igantziko Udalak bere zinegotzia den Urtzi Loiarteren lanaren egoerari buruz bidalitako idatzia non salatzen duten bere enpresan baimentzen badiote ere lan orduetan udal bilkuretara joaten, hilabeteko soldatatik 130 € kentzen dizkiola.**

**ERABAKI DUTE:**

**1) Igantziko zinegotzia den Urtzi Loiarteren lan egoera dela eta udal honen babesa interesatuari adieraztea eta bere enpresak berarekiko duen jarrera salatzea.**

9.- SITUACIÓN LABORAL DEL CONCEJAL DE IGANTZI URTZI LOIARTE: AYUNTAMIENTO DE IGANTZI.

*El Alcalde lee el escrito remitido por el Ayuntamiento de Igantzi sobre la situación laboral del concejal Urtzi Loiarte y, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

Visto escrito remitido por el Ayuntamiento de Igantzi sobre la situación laboral de su concejal Urtzi Loiarte en el que denuncia que, aunque la empresa le permite en horas de trabajo acudir a la reuniones municipales, le hace un descuento de 130 € del sueldo mensual.

SE ACUERDA:

1) Manifestar al concejal de Igantzi Urtzi Loiarte el apoyo de este Ayuntamiento ante su situación laboral y denunciar la actitud de la empresa respecto al mismo.

**2) Erabaki hau Igantziko Udalari eta enpresari bidaltzea.**

2) Trasladar este acuerdo al Ayuntamiento de Igantzi y a la empresa.

**10.- GURE ESKUALDERAKO LANBIDE HEZIKETA ZENTRO INTEGRATU BERRI BATEN ALDE ATXIKITZEA.**

10.- ADHESIÓN POR UN NUEVO CENTRO INTEGRAL DE FORMACIÓN PROFESIONAL PARA LA COMARCA.

***Alkateak Gure eskualderako lanbide heziketa zentro integratu berri bati buruz bidalitako idatzia irakurri du. Horren ondotik, aho batez, onartu eta honako erabakia hartu du:***

*El Alcalde lee el escrito remitido sobre un nuevo centro integral de formación profesional para la comarca. Tras ello, por unanimidad, se aprueba y adoptan el siguiente acuerdo:*

**ATXIKIMENDUA:**

Eskualde osorako LANBIDE HEZIKETA ZENTRO INTEGRATU BERRI baten proiektuari **atxikimendua** ematen dio.

Eskualdean zerbitzu/baliabide hau berrantolatzeko premia dago. Nafarroan eratu berria den Gobernuak ere hala bilduta dauka bere Gobernu akordioan. Honekin gure eskualderako aukera berri bat zabaltzen da.

Eskualderako ERREFERENTEA izango dena, kokapen zentralizatu batean, euskalduna eta hezkuntza eskaintza berritua eta eskualdeko beharrei egokitzeko aukerak emango dituena.

Prestakuntza erregelatua eta ez erregelatuaren aukera emango duena, gazte, heldu, langile eta langabetuentzako prestakuntza bat emango duena, goiz eta arratsaldez.

Atxikimenduarekin batera Zentro Integratu berria bideratzeko prozesu honetan aktiboki parte hartzeko prest gaudela adierazten da.

Bortzirietako udalen aldetik erran nahi genuke, Bortziriek duen kokapen eta izaera industrialagatik, lanketa honetan baloratu beharko litzatekeela Bortzirietako L.H. zentroa mantentzea. Arriskua ikusten dugu Bortzirietako ikasleak Gipuzkoara joatea hurbiltasunagatik, batez ere garraio publikoa ez bada bermatzen.

**11.- BANDOAK ETA ALKATEAREN EBAZPENAK.-**

11.- BANDOS Y RESOLUCIONES DE ALCALDÍA.-

**Honako bando eta Alkatetzaren ebazpen hauetaz jakinen gainean gelditu dira:**

Quedan enteradas y enterados de los siguientes bandos y resoluciones de Alcaldía:

**1) Bandoak: B2/2016tik B3/2016era.**

1) Bandos: del B2/2016 al B3/2016.

**2) Ebazpenak: 2016ko otsailaren 9ko 21. ebazpenetik 2016ko martxoaren 3ko 44.era arte.**

2) Resoluciones: De la resolución nº 21 de 9 de febrero de 2016 a la nº 44 de 3 de marzo de 2016.

**12.- ESKARIAK ETA GALDERAK. BESTE UDAL ORGANOEN KONTROLA.**

12.- RUEGOS Y PREGUNTAS. CONTROL DE LOS DEMÁS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN.

**Ez dira burutu.**

No se producen.

**Besterik gabe, Alkateak bilera bukatutzat eman du 20:30etan.**

No habiendo más asuntos, el Alcalde levanta la sesión a las 20:30 horas.

**O.E. ALKATEA/** V.B. EL ALCALDE
Josu Iratzoki Agirre

**IDAZKARIA/** LA SECRETARIA
Pilar Chueca Intxusta